

Zuia - Gorbeialdea

AURKIBIDEA

HAURREN BERTSOAK

LEGUTIO

3. orrialdea..... Garazi ikastola – 5. eta 6. maila

URKABUSTAIZ

4. orrialdea..... Izarra Herri eskola – 5. maila

5. orrialdea..... Izarra Herri eskola – 6. maila

ARAMAIO

6. orrialdea..... San Martin Eskola – 5. maila

7. orrialdea..... San Martin Eskola – 6. maila

MURGIA (ZUIA)

8. orrialdea..... Oroko Andra Mari ikastetxea – 5. maila

9. orrialdea..... Oroko Andra Mari ikastetxea – 6. maila

ZIGOITIA

10. orrialdea..... Gorbeia eskola – 5. maila

11. orrialdea..... Gorbeia eskola – 6. maila

ESKUALDEKO BERTSO ESKOLAK

12. orrialdea..... Mapa eta kontaktuak



Garazi ikastola – Legutio

5. eta 6. maila

Goizeko zortzietan
Korrikari ekin,
Gu bagoaz lasterka
Gure lagunekin,
Korrikaren furgona
beti doa berdin,
Euskal Herrian beti
Euskaraz hitz egin!

Euskara euki behar
beti mingainean,
eskolan ikastean
eta jolastean,
euskaraz hitz egiten
pauso bakoitzean,
Euskal Herri guztiak
euskara bihotzean.

Korrika da kirola,
Kirol mundiala,
Korrika Euskal Herrian
Zerbait kulturala,
Euskal Herriak dauka
Kultura zabala,
Korrika doa aurrera
Euskara bezala.

Korrika ta korrika
bagoaz batera,
euskaraz hitz egiten
goazen aurrera,
maite gure herria
ta maite euskera
eta orain goazen
korrika egitera.

Korrika dela eta
etorri laguna,
orain izango gara
jende txapelduna,
korrika ta korrika,
gaua ta eguna,
Legutio egin dezagun
herri euskalduna!

Euskarari ipini
zaiozu arreta,
korrikaren eguna:
euskara da meta,
Egun hauetan egin
dezagun lasterka,
euskara gure hizkuntza
hoberena da eta.



Izarra Herri eskola – Izarra
5. maila

Jubilatu!
Gu beti aspertu
ta horregatik hamar mila katu!

Beti ibiltzen gara
Motel ta poliki,
Eta ordaintzen dugu
Taxia garesti.

Gazteek beti hartzen
Dute bi pakete,
Umeek oso baxu
hitz egiten dute.

Txakurrak kaka egin
Eta jaso gabe,
Haien txakurren kakak
Kale erdian daude.

Pilo bat aldatu da
Guretzat mundua,
Lapur asko kalean
Da arriskutsua.

Semaforo gorriak
Eta egin topo
Semaforo berdeak
Oinezkoentzako.

Ikusi behar dute
Euren Shinosuke,
Ume batzuk bezala
Tratatzen gaituzte.

Diru asko gastatzen
Dugu gure hortzetan,
B.E.Z.a asko igotzen
Digute urtean.

Gazteek soinua eta
Zarata bakarrik,
Gazteek ez daukate
Errespetu handirik.

Jubilatu!
Gu beti aspertu
ta horregatik hamar mila katu!



Izarra Herri eskola – Izarra
6. maila

Bi geratu da zapaldurik ta
Bata ezin harroago
Inguruari begira eta
Bata oso pozik dago.
Bi geratu da zapaldurik ta
Bata oso pozik dago.

Txakur maiteak oparia eman
ta katua musukatzen,
oparitxoa kruasan bat zen
eta katuak jan zuen.
Txakur maiteak oparia eman
eta katuak jan zuen.

Lurretik nago botata eta
gorputza dut oso grabe,
abentura hau bukatu da ta
printzesa ilerik gabe.
Lurretik nago botata eta
printzesa ilerik gabe.

Anabelek azterketa egin
ta negarrez hasi bera,
guk azterketa zuzendu dugu
eta zero bat atera.
Anabelek azterketa egin
eta zero bat atera.

Maisuak haurrak ikusi ditu
tximu txikien modura;
irakasleak umore txarra
ta harrituta geratu da.
Maisuak haurrak ikusi ditu
ta harrituta geratu da.

Ia-ia garaipena nuen,
oso gogorra izan da hau!
Dendara deitu telefonotik
ta poliziak hartu nau.
Ia-ia garaipena nuen,
ta poliziak hartu nau.

Utzi dezagun borroka eta
kar, kar etxera goazen,
gonbidatu izozki batera,
lagunak izan gaitezen.
Utzi dezagun borroka eta
lagunak izan gaitezen.



San Martin Eskola – Aramaio
5. maila

Bera ezin da ibili
Bere txapel gabe,
Gure pelikuletan
bera izaten jabe,
pinguinoak bezala
dabil bera ere,
gizona beti dabil
pailazoan pare.

Urtea zenbatzeko
Da erabilia,
Ekartzen dute beti
Urtero berria,
Gainetik ipintzen da
Kriston marrazkia,
Betidanik dirudi
Libreta handia.

Berak kirola egin
Ta ez da pilota,
Berak irabazi ta
Bota zuen kopa
Ta berak gehienetan
Messikin borroka,
Asko haserretzen da
Bartzelonan kontra.

Final handira berriz
Joango da seguru,
Berak kantuz poztu du
Hamaika inguru,
Film direktorea da,
Zumaiarra dugu.
Idiazabal gazta
Oso gustoko du.

Amerikan dago ta
Da leku itzela,
Arraina ta sugeak,
Ere bai igela,
Guakamole, burrito,
Natxoak ta horrela,
Leku polit bat bada
Lehorra ta umela.

Kendu egin beharra
Rugby jolasteko,
Ikusteko behar da
Eta idazteko,
Arbela behatzeko
Ta irakurtzeko:
Bi leiho txiki dira
Ondo ikusteko.



San Martin Eskola – Aramaio
6. maila

Baserritarra oilarrarekin
Nahi duela bera erre,
Baserritarrak sua piztu du
Dagoela oso haserre.
Baserritarra oilarrarekin
Dagoela oso haserre.

Igoitzekin borrokatu ezinda
Gaurko eguna ez da ona,
Eta orduan bultzatu dio,
Jausi egin da Ramona.
Igoitzekin borrokatu ezinda
Jausi egin da Ramona.

Joan zen jaisten eskailerak bai
Estropozu egin zun hortan,
Lierni barrez Manexek tupust
Eta jausi zen han bertan.
Joan zen jaisten eskailerak bai
Eta jauzi zen han bertan.

Hegoak astintzen egon dela
Airean denbora nahiko,
Buruz jausi da ta ikusi du
Gorputzean kaka asko.
Hegoak astintzen egon dela
Gorputzean kaka asko.

Etxera heldu naiz ni zeinen ondo!
Kaixo familia maitea,
Ekarri dut gaur gure afaria:
Begira ze basurdea.
Etxera heldu naiz ni zeinen ondo!
Begira ze basurdea.



Gorbeia Eskola – Zigoitia
5. maila

Etxeetan badago
txikia, handia,
Idazteko balio
Goikoa gorria,
Luzea eta argala
Du punta txikia.
Carrefourren badago
Beltza eta horia.

Pertsona asko ditu
Punta amaieran,
Pertsona asko daude
Beti arriskuan,
Gopigitik urruti
Pekinen ondoan,
Munduan famatu, ez
Estatu Batutan.

Etxean egoten da
Ematen beroa,
Sua egiteko da
Behar da mordera,
Batzuetan jaten da
Ta da herrikoa,
Kolore beltza dauka
Harri formakoa.

Esfera bat bezala
Argiz betekoa,
Bere bihotza da ta
Bai metalezkoa,
Bere lana da eta
Dena ikustekoa,
Burusoila da, baina
Da kristalezkoa.

Animalia honek du
Handia garuna,
Ura putzutik edan
Ta ez da txukuna,
Korrikazalea da
Eta ugaztuna.
Animalia ertaina
Ta lau hankaduna.



Gorbeia Eskola – Zigoitia
6. maila

Jaialdirako aurkezpenak

Orain datorren gela
4-5 urtekoa,
Kantatuko dute lo
Dago gure haurtxoa.

Benga bigarren maila
Zatoz lasai-lasai,
Kanta ai hau gauaren
Zoragarria bai.

Orain bagatoz gu ta
Ez hasi kexaka,
Kantatuko duguna:
Noel-noel Kanta.

Laugarren mailakoak
Oso pozik datoz,
Orain entzungo dugu:
Musa de los vientos.

Etor zaitetze denok
Ipini gogoak,
Orain datoz txikiak,
Mesedez txaloak.

Badator lehen maila
Eman bi opari,
Ta abestuko dute
Oilarra kantari.

Ta hirugarren maila
Guztiok dantzara,
Dantzatuko dutena...
Da Si La bailara.



Oroko Andra Mari - Murgia
5. maila

Iritsi da eguna
Denok kantatzeko
Euskaraz baldin bada
Guretzat hobeto
Guretzako Euskara
Hori da perfekto
Euskararen eguna
Ondo pasatzeko

Gu euskaldunak gara
Hori da seguru
Euskararen eguna
Abenduak hiru
Euskara bultzatzea
Da gure helburu
Hau da gure altxorra
Zaindu behar dugu

Entzun jende guztia
Esango duguna
Euskaraz hitz egiten
Da gure erantzuna
Euskalduna bazara
Pentsatu laguna
Abenduaren hiruan
Euskara eguna

Euskararen eguna
Iritsi da jada
Gure hizkuntza atera
Behar da plazara
Aurrera Zuia eta
Aurrera Euskara
Murgiako guztiok
Euskaldunak gara

Hemen gaude kantatzen
Gu lotsarik gabe
Beti egingo dugu
Euskararen alde
Gu euskaraz egiten
Ta baita zu ere
Euskaraz egiteaz
Oso harro gaude



Oroko Andra Mari– Murgia 6. maila

Kaixo familia Londresen gaude
Laino asko daude hemen
Olinpiadak ikustera goaz
Ea ez garen nekatzen
Bi pisutako autobusetan
Egon gara paseatzen
Ikusi dugu Big Bang dorrea
Montaña rusan ibiltzen
Agur familia ikusi arte
Ta ia ikusten garen.

Kaixo lagunok Australian gaude
Bero handia du egiten
Kanguroekin jolastu dugu
Tasmania bisitatzen
Hondartzan egon gara gu biok
Itsasontziz nabigatzen
Operan egon gara gu biok
Arrezifea ikusten
Agur lagunok ikusi arte
Primeran gaude gu hemen.

Kaixo koadrilla Alaskan gaude
Gure oporrak pasatzen
Denboraldia txarra denez gu
Ez gaude asko disfrutatzen
Eski pistara igo gara bai
Eta gaude eskiatzen
Ta oso panda potolo batek
Abalantxa egin zuen
Ta hemen gaude harrapatu-
Igal ez gara bueltatzen.

Kaixo familia Mexikon gaude
Gure oporrak pasatzen
Ez gaude gaizki gu gaude ondo
Maiekin gaude jolasten
Bero handia egiten du bai
Ta ez dugu soportatzen
Mexikon oso gustora ez gaude
Pazko-ko irlara joaten
Hau bai polita Mexiko baino
Hemendik ez gara joaten.

Kaixo lagunok New Yorke-
n gaude
Oso ondo gaude hemen
Brooklyn zubia ikusi dugu
Ta oso altu zegoen
Famatu asko dago kaletik
Kotxe politak ikusten
Spiderman filma ikusi dugu
Hondartza handian ibiltzen
Agur lagunak hemen gaude gu
Zu etortzea itxaroten.

Eskualdeko bertso-eskolak
2012-2013 ikasturtea

LEGUTIOKO BERTSO-ESKOLA

Legutioko Kultur Etxea
Ortiz de Zarate enparantza z/g
01170 (Legutio)
Kontaktua: Oihane Perea
Tel: 945 455472 (Kultur Etxea) - 945 010505 (Arabako Bertsozale Elkarteak)
e-posta: araba@bertsozale.com



ARAMAIOKO BERTSO-ESKOLA

Aramaioko Kultur Etxea
Nardeaga, 36 (Ibarra).
01160 ARAMAIO
Arduraduna: Txema Abarrategi
Telefonoa: 945 010505 (ABE)
e-posta: araba@bertsozale.com

IZARRAKO BERTSO-ESKOLA

Urkabustaizko udala
Udaletxe plaza
01440 IZARRA
Arduraduna: Manex (euskara teknikaria)
Telefonoa: 945 437080 (Udala) - 945010505 (Arabako Bertsozale Elkarteak)
e-posta: euskara@cuadrillazuia.com

MURGIAKO BERTSO-ESKOLA

Murgiako institutua
Domingo de Sautu, 65
01212 MURGIA
Arduraduna: Uxue Diaz de Cerio
Telefonoa: 945 010505 (Arabako Bertsozale Elkarteak) — 688616531



AMAIA ZENTROA
Benito Pérez Galdós z/g
01002 GASTEIZ
Tel: 945010505 fax: 945288275
Mug: 688695875 - 688616531
e-posta: araba@bertsozale.com
arababertsozale.org